

## LIZITAZIO IRAGARKIA

Udal honek ondorengo baldintza agiriak onartu dituela jakinarazten da:

### 1. Esleipena egiten duen erakundea:

Erakundea: Bermeoko Udala

b. Espedientearen instruktorea: Zerbitzu Saila

c. Espediente zenbakia: ZE3-VI-1

### 2. Kontratuaren izaera:

a. Mota: Hornidura, zerbitzu eta obretako kontratu administratibo mistoa.

b. Xedea: Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta berme osoarekin.

c. Zerbitzuaren ezaugarriak: Baldintza Agiri Teknikoetan zehazten direnak

d. Egite/ emate tokia: Bermeoko herria

e. Kontratuaren iraunaldia: 12 urte.

f. CPV(nomenklatura erreferentzia): 50232100-1

### 3. Tramitazioa eta prozedura

Tramitazioa: Ohikoa.

b. Prozedura: Irekia erregulazio bateratuari lotuta.

### 4. Lizitazioaren aurrekontua:

Kontratuaren prezio estimatua 3.087.352,07€koa da. Zenbateko honi une horretan dagokion BEZa gehitu beharko zaio.

Urteko gehieneko lizitazio prezioa 257.279,34€koa da eta kopuru hau jarraian zehazten diren kontzeptuen batura da:

P1, energia kudeaketa	132.649,3392 €/urtean.
P2, mantenua+P3, berme osoa	86.690,0000 €/urtean.
P4, energia kontsumitzen duten instalazioen hobekuntza eta eraberritze lanak eta bere finantzaketa	37.940,0000 €/urtean.



**Guztira (P1, P2, P3, P4)**

**257.279,3392 €/urtean.**

5. Bermeak:

Beharrezko baldintza izango da behin behineko bermea egin dela egiaztatzea. Berme hori 92.620,56€koa izango da eta kontratu honen prezio estimatuaren %3a izango da, BEZa kenduta

b.Behin betiko bermearen zenbatekoa esleipenaren zenbateko osoaren %5 izango da, BEZa kenduta.

6. Informazioa eta agiriak eskuratzea:

Erakundea: Bermeoko Udala (BerHAZ)

b. Helbidea: Ertzilla kalea 6 – 8

c. Herria eta posta kodea: Bermeo 48370

d. Telefonoa: 94 617 91 00

e. Faxe: 94 688 23 12

f. E-posta: [berhaz@bermeo.org](mailto:berhaz@bermeo.org)

g. Argibideak eta agiriak lortzeko azken eguna:Eskaintzak aurkezteko azken eguna.

7. Proposamenak aurkeztea:

a. Proposamenak aurkezteko azken data: 2016ko urtarrilaren 16ko goizeko 12:00ak arte

b. Lekua: Udaleko BerHAZ bulegoa, Bermeoko Ertzilla kalea 6-8. Astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era. Astearte eta ostegunetan 16:30etik 19:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

c. Modua: Proposamena postaz bidaliz gero, enpresariak posta bulegoan bidalketa data justifikatu beharko du, eta kontratazio organoari, egun berean, 94.688.23.12 zenbakira fax bidez jakinarazi. Baldintza bi horiek ez badira betetzen proposamena ez da onartuko kontratazio mahaiak proposamen hori iragarkian adierazitako epea amaitu ostean jasotzen badu.

Dena den, data horretatik hamar egun natural igarotzen badira, eta ez bada proposamena jaso, ez da kasu bakar batean ere onartuko.

Agiriak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira eta jatorrizkoak edo indarrean daogoen legediak ezartzen duen moduan benetako izaera duen kopiak



izan ahalko dira. Behin behineko bermea osatu izanaren dokumentazioa kasu guztietan izan beharko da jatorrizkoa.

#### 8. Esleipena:

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko gehienezko epean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean zabalduko dira kontratazio mahaiak erabakitako egunean.

Prezioaz gain, beste irizpide batzuk baloratuko direnez, esleipena bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak zabaldu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

#### 9. Balorazio irizpideak:

Kontratuaren baldintza administratiboen pleguko 9. Klausulan zehaztutakoak.

#### 10. Iragarpen gastuak:

Iragarpen gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

11. "Europako Erkidegoko Aldizkari Ofizialera" bidalitako data: 2015eko abenduaren 7a.

Bermeon, 2015eko abenduaren 9an.

ALKATEA

